

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

4446

EBAZPENA, 2018ko abuztuaren 29koa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez iragartzen baita, 2018ko ekitaldirako, enpresa I+G bultzatzeko Hazitek programaren II. fasearen deialdia.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko urtarrilaren 31ko Agindua-ren bidez arautzen da enpresa I+G bultzatzeko Hazitek programa (2017ko martxoaren 2ko EHAA, 43. zk.).

I. fasea bukatuta, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordearen ebazpen baten bidez eta interesdunei jakinarazi eta EHAA-n argitaratu ondoren, II. fasearen deialdia egiten da, aipatutako agindu arautzailearen 12.3 artikuluari jarraikiz, I. fasean onartu diren proiektuei laguntzak esleitzeko, 2018ko ekitaldian, eta, horretarako, behar diren arauak eman behar dira.

Horiek horrela, aipatutako aginduaren 12.3 artikuluan ezarritako eskumenaz baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea hau da: II. fasearen deialdia egitea, I. fasean onartutako proiektuetarako laguntzak esleitzeko. I. fasea 2017ko urtarrilaren 31ko Aginduan aurreikusi zen, eta horretarako deialdia 2017ko abenduaren 7ko Ebazpenaren bitartez egin zen (2017ko abenduaren 20ko EHAA, 241. zk.). Aipatutako agindu horren bitartez, enpresa arloko I+G bultzatzeko Hazitek laguntza-programa arautzen da, 2018ko ekitaldiari dagokionez.

2. artikulua.– Diru-baliabideak.

Deialdiko laguntzak finantzatzeko, 78.000.000,00 euro erabiliko dira. Erabilera horrek bat etorri beharko du Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren 2018ko ekitaldiko aurrekontu-kredituekin. Abenduaren 22ko 5/2017 Legearen bidez onartu ziren aurrekontu horiek.

Deialdiaren erabateko zenbatekoko 39.000.000,00 euro bideratzen dira izaera lehiakorreko I+G proiektuak finantzatzera, eta 39.000.000,00 euro izaera estrategikoko proiektuak finantzatzera.

Eskatutako laguntzen guztizko zenbatekoa kontuan izanik eta haiek ebatzi baino lehen, zenbateko horiek aldatu ahal izango dira; betiere, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren beste laguntza-programa batzuk gauzatzearen ondorioz agortu gabe geratzen diren aurrekontu-baliabideen arabera. Aldaketarik izanez gero, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordeak ebazpena emango du, aurreko guztiaren berri emateko.

3. artikulua.– Betekizunak.

Deialdi honetako laguntzak eskuratu ahal izateko, egiaztatu beharko da Hazitek programa arautzen duen Aginduaren 3. eta 20. artikuluetan proiektu eta entitate eskatzaileei buruz ezarritako baldintzak betetzen direla.

4. artikulua.– Eskabideak: aurkeztea eta epea.

1.– Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko urtarrilaren 31ko Aginduaren 20. artikuluan ezarritako zehaztapenekin bat etorri egin beharko da eskabidea; agindu horren bidez arautzen da enpresa I+G bultzatzeko Hazitek programa.

2.– Eskabidea lortzeko eta hori betetzeko, ondoren adierazten den egoitza elektronikoan bakoitza egin ahal izango da:

<http://www.industria.ejgv.euskadi.eus/r44-teletram/es/> (gaztelania)

<http://www.industria.ejgv.euskadi.eus/r44-teletram/eu/> (euskara)

3.– Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, 09:00etan; amaitu, berriz, 2018ko urriaren 10eko 12:00etan amaituko da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, eta laguntzak emateko proposamena egiteko, ebaluazio-organo bat eratzen da, zeinaren osaketa hauexek izango baita:

Lehendakaria: teknologiaren arloan eskuduna den zuzendaritzako titularra, Iosu Madariaga Garamendi; eta ordezkaria: teknologiaren arloan eskuduna den sailburuordetzako titularra, Estibaliz Hernáez Laviña.

Honako kide hauek izango dira bakoitza:

- Industriaren garapenaren arloan eskumenak dituen zuzendaritzako titularra, Alejandro López Cárcamo; eta ordezkaria: industriaren garapenaren arloan eskumenak dituen zuzendaritzako teknikari bat, Agustín García Pérez.

- SPRIren ordezkari bat, Alberto Fernández González; eta ordezkaria: Miguel García Altuna.

- Teknologiaren arloan eskumenak dituen zuzendaritzako teknikari bat, Larraitz Segurola Bereciartua; eta ordezkaria: Natividad Niño Bartolomé, zeinak idazkari-eginkizunak egingo baititu.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abuztuaren 29a.

Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea,
ESTÍBALIZ HERNÁEZ LAVIÑA.

2018ko irailaren 7a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"

Eskualde Garapenerako Europar Funtza (EGEF)
"Europa egiteko modu bat"

HAZITEK 2018

ESKAERA (liderrak aurkeztu beharrekoa)
TC-1 INPRIMAKIA - II. FASEA

Jn./Andreak:

NAN/AIZ:

Honako honen ordezkartzan

Erakundea:.

IFZ:

Industri Erregistroko zk.:

Bizi denak

Udalerria: /

Kalea:

P.K.:
 Telefonoa: Faxa:

Jarduera sektore honen barruan sartzen denak:

EJSN: /

Zein klusterren barruan dagoen: /

Harremanetarako pertsona:

Telefonoa:

Faxa:

E-maila:

PROIEKTUAREN LIDER DEN ALDETIK HAUXE ESKATZEN DU:

Enpresa I+G bultzatzeko HAZITEK programako laguntzak ematea, I motako proiektuarentzat: ezaugarri lehiakorra duen ikerketa eta garapeneko, lehen fasean onartua. Jarraian deskribatzen da laguntza jaso dezakeen proiektua.

Akronimoa / Titulua:

Parte-hartzaileak:

IFZ	Erakundea:	Parte-hartzea €-tan	Eginkizuna
Guztizkoak:			

2018ko irailaren 7a, ostirala



Fondo Europeo de
Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"

Eskualde Garapenerako
Europar Funtsa (EGEF)
"Europa egiteko modu bat"

HAZITEK 2018**PROIEKTUAN PARTE HARTZEA**

(parte-hartzaile guztiek bete beharrekoa, liderrak barne)

TC-2 INPRIMAKIA - II. FASEA

Jn./Andreak:

NAN/AIZ:

Honako honen ordezkartzan

Erakundea:

IFZ:

Industri Erregistroko zk.:

Bizi denak

Udalerrria: /

Kalea:

Telefonia:

P.K.:

Faxe:

Jarduera sektore honen barruan sartzen denak:

EJSN: /

Zein klusterren barruan dagoen: /

Harremanetarako pertsona:

Telefonia:

Faxe:

E-maila:

Zein udalerritan gauzatzen den jarduera subentzionagarria:

AITORTZEN DU:

HAZITEK - Lehiakortasun arloko I+G-ko proiektuak - produktuen garapenerako programan parte hartzen duela

Akronimoa / Titulua:**Proiektuaren liderra:** .**Aurrekontua €-tan bereizirik:**

Langileen zuzeneko kostuak	ZTIES Azpikont.	Beste azpikontra.	Inbertsioak	Gastuak	Zeharkako kostuak	Guztira

☒

BAIMENA EMATEN DIOT Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren garapenera eta azpiegitura sailari edota dagokion lurralde bulegoari zuzenean edota SPRI S.A. eska diezaien zerga arazoetan eskumena duten organoei nire ordezkatuak zerga betebeharrak eta gizarte-segurantzak bete dituela egiaztatzen duen agiria, beti ere Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretatik dirulaguntzak jasotzen dituzten onuradunen zergen betepenenaren egiaztapenari buruzko 1991ko urriaren 7ko Aginduan eta ondoren egindako eguneratzeetan ezartzen denaren arabera.

2018ko irailaren 7a, ostirala



ERAGIN PIZGARRIA ZIURTATZEN DUEN AITORPENA

..... jn./and.,(IFZ:) ordezkatzuz eta haren izenean,
 kargua eta indarrean dagoen notarioaren ahalordea izanik.

PROIEKTUAREN DATUAK		
LAGUNTZA PROGRAMA	ESPEDIENTEA	AKRONIMOA
PROIEKTUAREN EDO JARDUERAREN AZALPENA		
AITORPENA Eskatutako laguntza beharrezkoa dela goian aipatutako proiektuan aurreikusitako helburuak lortzeko, eta laguntza horrek pizgarri efektua izango duela, enpresako I+G+B-ko jarduerak ugartuko direlarik. Hori guztia adierazle hauen bidez zehaztuko da: ☐ <i>proiektu edo jardueraren tamaina nabarmen handituko da</i> ☐ <i>proiektu edo jardueraren aplikazio esparrua nabarmen handituko da</i> ☐ <i>proiektuaren exekuzio erritmoa nabarmen azkartuko da</i> ☐ <i>I+G-n gastatutako zenbatekoa nabarmen handituko da</i>		
JUSTIFIKAZIOA (AURREKO ATALEAN AUKERATUTAKO IRIZPIDEAREN AZALPEN LABURRA)		
ERANTZUKIZUNEZKO AITORPENA Eskatzaileak edo bere ordezkariak bere ardurapean aitortzen du agiri honetan emandako datuak zehatzak direla eta bat datozela indarrean dagoen legeriarekin.		

Ikusi atzealdea

Noiz eta:

- **Proiektuaren edo jardueraren tamaina nabarmen handitzen denean**, laguntzak proiektuaren guztizko kostua handitzeko balioko du onuradunaren gastua murriztu gabe, proiektu berak laguntzarik gabeko egoera batean izango lukeenarekin alderatuta. Baita ere balioko du I+G+B arloko langile kopurua handitzeko.
- **Proiektuaren aplikazio esparrua nabarmen handitzen denean**, laguntzak proiektutik espero diren emaitzen kopurua edo haien kalitatea handitzeko balioko du, eta baita ere arrakastarako aukera gehiago eta aurrerapen zientifiko edo teknologiko handiagoak dituen proiektu handinahitsuago bat planteatzeko.
- **Proiektuaren exekuzio erritmoa nabarmen azkartzen denean**, laguntzak proiektua amaitzeko behar den denbora murrizteko balioko du, proiektu berak laguntzarik gabeko egoera batean beharko lukeen denborekin alderatuta.
- **I+G+B-n eginiko gastua nabarmen handitzen denean**, laguntzak enpresaren guztizko I+G+B-ko gastua edo proiektu zehatz batena handitzeko balioko du, beste proiektu batzuetara bideratutako aurrekontua murriztu gabe. I+G+B-n egindako guztizko gastua handituko litzateke negozio bolumenaren portzentaje gisa.



ERANTZUKIZUNEZKO AITORPENA

..... jn./and., den aldetik eta indarrean dagoen notarioaren ahalordea duelarik,(r)en izenean eta hura ordezkatzuz (..... IFZ). Enpresa horrek parte hartzen du HAZITEK 2018 programara aurkeztutako Hazitek Competitivo proiektuan.

AITORTZEN DU

1. ETEa bada, haren ezaugarriak bat datozela ETEaren definizioarekin, Europako Erkidegoko arauekin bat etorritik. Enpresa txiki edo ertaintzat hartuko dira, 651/2014 salbuespeneko Erregelamendu Orokorreko I. eranskina aintzat hartuz, 250 baino langile gutxiago dituzten enpresak, negozio-bolumena gehienez 50 milioi eurokoa edo txikiagoa dutenak, edota urteko balantze orokorra 43 milioi eurotik gorakoa ez dutenak. Enpresa txikitzat joko dira, berriz, 50 langile baino gutxiago izanik urteko negozio-bolumenean edota urteko balantze orokorrean 10 milioi euroko zenbatekoa gainditzen ez dutenak. Kasu bietan, elkartutako edo uztartutako enpresen langile eta muga zenbatespena, 651/2014 Salbuespeneko Erregelamendu Orokorrearen I. eranskineko 4, 5 eta 6. artikuluetan ezarritakoaren arabera gauzatuko da.
3. Ez daudela administrazio publikoekin lotuta edo haien mende, eta ez direla administrazio instituzionalekoak.
3. Enpresa handi edo ertaina baldin bada, ezin da egon berregituratze-aldian, eta, hala badago, jasotzen duen berregituratze-laguntzaren berri izan behar du Europako Batzordeak.
4. Beste instituzio publikoetan edo pribatuetan, proiektu berarentzat eskatutako eta/edo emandako laguntzak.

Erakundea	Programaren izena	Aurkeztutako kostu subent.	Eskatutako zenbatekoa	Emandako zenbatekoa	Emate data

5. Enpresa handia bada, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45.2 artikuluan ezarritakoa betetzen duela.
6. Erakunde eskatzaileak diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zigor administratiborik edo penalik ez izatea, eta hartarako ezgaitzen duen legeko debekuaren eraginpean ere ez egotea, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedaturikoari jarraikiz.
7. Erakunde eskatzailea ez izatea berreskuratze-agindu baten zain dagoen enpresa edo erakunde bat, Europar Batasunak diru-laguntza bat legez kontrakoa eta merkatu komunarekin bateraezina dela adierazi duen aurretiazko erabaki baten ondoren.
8. Azkenik, onuradun den aldetik gaitasuna daukala eta prest dagoela gorago zerrendatutako baldintzak betetzeko.

2018ko irailaren 7a, ostirala

**HAZITEK 2018****PROIEKTUAN PARTE HARTZEA**

(parte-hartzaile guztiek bete beharrekoa, liderrak barne)

TC-2 INPRIMAKIA - II. FASEA

Jn./Andreak:

NAN/AIZ:

Honako honen ordezkartizan

Erakundea:
IFZ:

Industri Erregistroko zk.:

Bizi denak

Udalerrria: /
Kalea:P.K.:
Telefonia: Faxa:

Jarduera sektore honen barruan sartzen denak:

EJSN: /
Zein klusterren barruan dagoen: /

Harremanetarako pertsona:

Telefonia: Faxa: E-maila:

Zein udalerritan gauzatzen den jarduera subentzionagarria:

AITORTZEN DU:

HAZITEK - Lehiakortasun arloko I+G-ko proiektuak - produktuen garapeneakoak programan parte hartzen duela

Akronimoa / Titulua:

Proiektuaren liderra: .

Aurrekontua €-tan bereizirik:

Langileen zuzeneko kostuak	ZTIES Azpikont.	Beste azpikontra.	Inbertsioak	Gastuak	Zeharkako kostuak	Guztira

- ☒ BAIMENA EMATEN DIOT Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren garapeneta eta azpiegitura sailari edota dagokion lurralde bulegoari zuzenean edota SPRI S.A. eska diezaizen zerga arazoetan eskumena duten organoei nire ordezkatuak zerga betebeharrak eta gizarte-segurtasun bete dituela egiaztatzen duen agiria, beti ere Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretatik dirulaguntzak jasotzen dituzten onuradunen zergen betepenaren egiaztapenari buruzko 1991ko urriaren 7ko Aginduan eta ondoren egindako eguneratzeetan ezartzen denaren arabera.
- ☒ BAIMENA EMATEN DIOT Liderrari laguntza eskatzeko gure izenean.

2018ko irailaren 7a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"

Eskualde Garapenerako Europar Funtsa (EGEF)
"Europa egiteko modu bat"

ERAGIN PIZGARRIA ZIURTATZEN DUEN AITORPENA

..... jn./and., (IFZ:) ordezkatzuz eta haren izenean,
..... kargua eta indarrean dagoen notarioaren ahalordea izanik.

PROIEKTUAREN DATUAK		
LAGUNTZA PROGRAMA	ESPEDIENTEA	AKRONIMOA
PROIEKTUAREN EDO JARDUERAREN AZALPENA		
AITORPENA		
Eskatutako laguntza beharrezkoa dela goian aipatutako proiektuan aurreikusitako helburuak lortzeko, eta laguntza horrek pizgarri efektua izango duela, enpresako I+G+B-ko jarduerak ugarituko direlarik. Hori guztia adierazle hauen bidez zehaztuko da: ☐ <i>proiektu edo jardueraren tamaina nabarmen handituko da</i> ☐ <i>proiektu edo jardueraren aplikazio esparrua nabarmen handituko da</i> ☐ <i>proiektuaren exekuzio erritmoa nabarmen azkartuko da</i> ☐ <i>I+G-n gastatutako zenbatekoa nabarmen handituko da</i>		
JUSTIFIKAZIOA (AURREKO ATALEAN AUKERATUTAKO IRIZPIDEAREN AZALPEN LABURRA)		
ERANTZUKIZUNEZKO AITORPENA		
Eskatzaileak edo bere ordezkariak bere ardurapean aitortzen du agiri honetan emandako datuak zehatzak direla eta bat datozela indarrean dagoen legeriarekin.		

Ikusi atzealdea

Noiz eta:

- **Proiektuaren edo jardueraren tamaina nabarmen handitzen denean**, laguntzak proiektuaren guztizko kostua handitzeko balioko du onuradunaren gastua murriztu gabe, proiektu berak laguntzarik gabeko egoera batean izango lukeenarekin alderatuta. Baita ere balioko du I+G+B arloko langile kopurua handitzeko.
- **Proiektuaren aplikazio esparrua nabarmen handitzen denean**, laguntzak proiektutik espero diren emaitzen kopurua edo haien kalitatea handitzeko balioko du, eta baita ere arrakastarako aukera gehiago eta aurrerapen zientifiko edo teknologiko handiagoak dituen proiektu handinahitsuago bat planteatzeko.
- **Proiektuaren exekuzio erritmoa nabarmen azkartzen denean**, laguntzak proiektua amaitzeko behar den denbora murrizteko balioko du, proiektu berak laguntzarik gabeko egoera batean beharko lukeen denborarekin alderatuta.

2018ko irailaren 7a, ostirala



- **I+G+B-n eginiko gastua nabarmen handitzen denean**, laguntzak enpresaren guztizko I+G+B-ko gastua edo proiektu zehatz batena handitzeko balioko du, beste proiektu batzuetara bideratutako aurrekontua murriztu gabe. I+G+B-n egindako guztizko gastua handituko litzateke negozio bolumenaren portzentaje gisa.

ERANTZUKIZUNEZKO AITORPENA

..... jn./and., den aldetik eta indarrean dagoen notarioaren ahalordea duelarik,(r)en izenean eta hura ordezkatzuz (..... IFZ). Enpresa horrek parte hartzen du HAZITEK 2018 programara aurkeztutako Hazitek Competitivo proiektuan.

AITORTZEN DU

1. ETEa bada, haren ezaugarriak bat datozela ETEaren definizioarekin, Europako Erkidegoko arauekin bat etorritz. Enpresa txiki edo ertaintzat hartuko dira, 651/2014 salbuespeneko Erregelamendu Orokorreko I. eranskina aintzat hartuz, 250 baino langile gutxiago dituzten enpresak, negozio-bolumena gehienez 50 milioi eurokoa edo txikiagoa dutenak, edota urteko balantze orokorra 43 milioi eurotik gorakoa ez dutenak. Enpresa txikitzat joko dira, berriz, 50 langile baino gutxiago izanik urteko negozio-bolumenean edota urteko balantze orokorrean 10 milioi euroko zenbatekoa gainditzen ez dutenak. Kasu bietan, elkartutako edo uztartutako enpresen langile eta mugen zenbatespena, 651/2014 Salbuespeneko Erregelamendu Orokorrean I. eranskinen 4, 5 eta 6. artikuluetan ezarritakoaren arabera gauzatuko da.
3. Ez daudela administrazio publikoekin lotuta edo haien mende, eta ez direla administrazio instituzionalekoak.
3. Enpresa handi edo ertaina baldin bada, ezin da egon berregituratze-aldian, eta, hala badago, jasotzen duen berregituratze-laguntzaren berri izan behar du Europako Batzordeak.
4. Beste instituzio publikoetan edo pribatuetan, proiektu berarentzat eskatutako eta/edo emandako laguntzak.

Erakundea	Programaren izena	Aurkeztutako kostu subent.	Eskatutako zenbatekoa	Emandako zenbatekoa	Emate data

5. Enpresa handia bada, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45.2 artikuluan ezarritakoa betetzen duela.
6. Erakunde eskatzaileak diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zigor administratiborik edo penalik ez izatea, eta hartarako ezgaitzen duen legeko debekuaren eraginpean ere ez egotea, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedaturikoari jarraikiz.
7. Erakunde eskatzailea ez izatea berreskuratze-agindu baten zain dagoen enpresa edo erakunde bat, Europar Batasunak diru-laguntza bat legez kontrakoa eta merkatu komunarekin bateraezina dela adierazi duen aurretiazko erabaki baten ondoren.
8. Azkenik, onuradun den aldetik gaitasuna daukala eta prest dagoela gorago zerrendatutako baldintzak betetzeko.